



Korrikari ondoetorria egiteko batzordeak antolatzen dabilta eskualdeko herrietan. ▶20

Siriako gatazkatik ihesi, itsasoa zeharkatu gura duten errefuxiatuen zorigaitza irudikatzen ahalegindu da Endika Basaguren artista. ▶3



hiruka

Uribe Kostako astekaria



82. zenbakia

2017ko
urtarrilaren 26tik
otsailaren 1era arte

«Erreferenduma egin egingo da»

Juanma Rojas CUPEko Nazio Idazkaritzako kidea Tosu landan egon zen, atxikimendua erakusteko eta hitzaldia emateko. Kataluniaren egoeraz berba egin dugu beragaz. ▶18-19



BEREZIA UMEENTZAKO DENBORA-PASAK

Hirukira Olgetan

Umeei begirako berezia plazaratuko du HIRUKAK, hilabete amaiera bakoitzean; orrialde biko denbora-pasen txokoa izango da. ▶22-23



AGENDA LEIOA

Kultur Maratila

Otsailaren 1etik 5era, maratila askatu eta euskal kultur sormen freskoa sartuko da Kultur Leioara. Aurton, bost eguneko egitaraua antolatu du Artedrama plataformak, Kultur Leioagaz elkarlanean. Sei ikuskizun eskainiko ditu Kultur Maratilak bere seigarren edizioan. ▶8

Hezkuntza gehigarri berezia

MATRIKULAZIO-GARAIA

2017-18 IKASTURTEA

Izena emateko garaia da!

Berangon etxebakoei aterpea emateko hitzarmena izenpetu dute Mankomunitateak eta Getxoko Udalak. ▶3

Paperaren eta kartoiaren batze-zerbitzu berria esleitzeko prozesua martxan ipini du Mankomunitateak. ▶6

Euskara ikasteko tailerra antolatu du Lemoizko Udalak, horretan izena emateko azkeneko eguna hilaren 26a da. ▶7

Plentziako Danontzat gaztetxearen laugarren urteurrena ospatuko dute aste-akabuan, hilaren 26tik 28ra bitartean. ▶7

Getxoko Benta eraikina biziberritzeko guran

Getxoko azpiegiturari erabilera berria emateko «BentaraNoa» prozesuari amaiera eman zioten joan den zapatuan.

Hilaren 21ean, 50 lagun baino gehiago batu ziren Getxon Bentaren etorkizunaz berba egiteko. Lehenengo eta behin, Benta eraikina bisitatu zuten, azpiegituraren nondik norakoak ezagutzeko. Ondoren, bilera eta eztabaida egin zuten Geroa ikastolan. Bertan, Bentaren beharrez eta aurrez hausnartu zuten, horrek auzoa dinamizatzeko dituen aukerak kontutan hartuta. Bileran parte hartu zutenek jakinarazi dutenez, askotariko proposamenak egon ziren, eta horien arteko topagune bat bilatzeko borondatea egon zen. «BentaraNoa» ekimena 2016ko urrian hasi zen, eta prozesua zapatuan amaitu zen; hala ere, oraindik, ez dute zehaztu zein izan-



50 lagun baino gehiagok parte hartu zuten «BentaraNoa» prozesuaren amaierako saioan.

go den Benta eraikinaren etorkizuneko funtzioa. Proposatutako jarduerak honako gai hauek lotuta daude: ongizatea, elikadura osasungarria, gastronomia, kontsumo arduratsua, prestakuntza, garapen pertsonala, ekintzailatza, turismoa, teknologia nahiz sorkuntza- eta kultura-industriak. Jasotako proposamenak askotarikoak izan dira, erabilerari zein kudeaketa-ereduari dagokienez, baina

guztiak bat datoz: «Benta irekitzea» da garrantzitsuena euren arabera, eta proiektu horrek «auzoa suspertzeko lehen urratsa» izan behar du.

Ramiro Pinillaren museoa

«BentaraNoa» prozesua aprobetxatuz, kultura-munduko ehun pertsona ospetsu inguruk Ramiro Pinilla idazle getxoztarrari gorazarre egiteko museo bat egitea proposatu dute.

Etiket euskararen transmisioa bultzatu gura du Udalak

Getxoko Udalak etiket egin daitkeen euskararen transmisioa bultzatu gura du datozen asteotan. Horretarako, hainbat euskarritan azpimarratuko du pertsona guztion garrantzia, bakoitzak ahal duen neurrian, etxean euskararen presentzia areagotzeko, indartzeko eta euskaraz bizitzeko ikas dezagun. Lehenengoz, Udalak gurasoei *Emaiozu bizia, dale vida al Euskara* liburuxka emango die, erditze-prestaketaren saioetan daukenez. Horretan elebitasunaren abantailak, aholkuak eta sor litezkeen zailtasunak argibideak azalduko dizkie gurasoei. Gainera, Udalak *Eman giltza* kanpaina parte hartzen du. Horrez gainera, 2017an jaiotako umeei materiala bidaliko die, etxean euskaraz erabili ahal izateko oinarritzko kontuak: musika, euskarazko berbak, aholkuak eta abarrak. Hala, aipatutako hiru ildoen inguruko informazioa eta baita umeen artean euskararen erabilera sustatzen laguntzeko ideiak eta aholkuak batzen dituen liburuxka argitaratu du Udalak. Argitalpena Getxoko etxebizitza guztietara helduko da, asteko *Getxoberriagaz* batera.

info+: Hiruka.eus/getxo
www.getxo.eus

Daborduko maskotak eroan ahal dira Bizkaia Zubian

Txakurrak eta euren ugazabak Bizkaia Zubiko bidaiarien kabinan joan daitezke daborduko. Orain arte, autoen lekuan joan zitezkeen; baina jasotako kexak direla eta, araudia aldatzea erabaki du enpresak. Hala, 40 kilogramotik beherako katuak zein txakurrak euren jabeakaz joan ahal izango dira, doan, uhalagaz lotuta edo horiek garraiatzeko motxiletan.



RKEren ingurua egokitze proiektua martxan da

Romo Kultur Etxe berriaren ingurua egokitze proiektua aurkeztu du Udalak, «pertsonentzako inguru handiagoak eta berdegune gehiago sortuz eta hesi bisualak kenduz», arduradunek azaldu dutenez. Jarduketa integral horren helburua ekipamendu soziokultural berria inguratzen duen esparrua egokitzea da, gaur egungo urbanizazioa nabarmen hobetzeko as-

moz. Gainera, Romo Kultur Etxearen jardura bere paraje inguruagaz bateratu eta berriro baloratu gura da. Gobernu-taldeak prestatutako 2016/2019 Legealdi Planak aurreikusten dituen lehentasuneko ekintzetako bat da proiektua. Horren gaineko erakusketak publiko bat antolatzen dabil Udalak, martxoan egiteko asmoa du, «beharrezkoa denean» iragarriko du.

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Itñaki Bitxitegia



Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1
94 430 23 45 94 460 27 41
Algorta

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GAVRKO
1967



GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Getxo

«Siriatic ihesi, itsasoan galtzen dute bizia»

Endika Basaguren Ansoleaga artista berangoztarraren *Helmugak* erakusketa ikusteko aukera dago Algortako Torrene aretoan, urtarrilaren 29ra arte.



Erakusketa ikus daiteke eguaztenetik barikura (11:00-13:00 / 17:00-20:00), zapatuan (12:00-14:00 / 18:00-21:00) eta domekan (12:00-14:00).

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA

ARGAZKIA: HODEI TORRES

Besteak beste, Siriako gatazkatik ihesean, itsasoa zeharkatu gura duten errefuxiatuen zorigaitza irudikatzen saiatu da Endika Basaguren Ansoleaga artista berangoztarra. Margolanak dira nagusi erakusketan.

Zer kontatu gura izan duzu erakusketan honen bidez?

Siriako gatazka islatzen ahalegindu naiz: itsasoa zeharkatuz, bizitza hobe bat aurkitzen saiatzen diren errefuxiatuen arazoa da gai nagusia. Baina, ez naiz horretara mugatzen; abiapuntua Siriako gatazka izan arren, itsasoz bidaiatuz, etorkizun hobe bat lortu gura duten lagun denak irudikatu nahi izan ditut; horien artean, ni neu. Bideo batean neure burua ikus daiteke hainbat margolan itsasora botatzen, nazioarteko erakusketa-aretoetara hel daitezen. Gutako askoren aitita-amamek ere itsasoa zeharkatu behar izan zuten, bizimodu hobe baten bila.

Baina, denak ez dira bizirik heltzen. Itota hil aurretik ala ez, itsasora salto egindako errefuxiatuek bizi dituzten azken momentu latzak islatzen ahalegindu naiz, margolanen bidez. Bene-

tan, tragikoa izan behar du etorkizun hobeagoa lortu gura eta azkeneko hantza botatzea helburua lortu barik.

Askotan sorrarazten du beldurra itsasoak, ezta?

Alde ona eta txarra dauzka itsasoak; garai batean, etxera diru-apurak eroratzeko guztiz beharrezkoa zen. Orain, astialdirako erabiltzen dugu, gehien bat. Hari horretatik tiraka, erakusketako lanetako batean erdi-itota agertzen naiz ni; izan ere, urpekaritza egiten nenbilela, istripu larria eduki nuen. Hiltzeko zorian egon nintzen! Ez da kontu bera; baina, saiatu naiz sentitu nuena alderatzen errefuxiatuek sufritzen dutenagaz; erreskatatuak izateko esperantzaz heltzen dira kostaldera, horietako asko seme-alabak altzoan. Askotan, ez dute lortzen. Kuadrillako lagun bat dago Greziako errefuxiatuen kanpaleku batean, sorosle. Kontu izugarriak kontatzen dizkigu, etortzen den bakoitzean.

Erakusketako lanak margotzen zerbiltzala sortu zen Siriako gatazka...

Bai. Lehenengo eta behin, aipatzea beharrezkoa da, urte biko lana dagoe-lari *Helmugak* erakusketaren atzean. Bestalde, hau guztia prestatzen hasi nintzenean, itsas margoetan oinarritutako posta-txartelak elkartrukatzen

nenbilen mundu osoko artistakaz; korrante ozeanikoak irudikatu gura nituen... Munduaren bestaldera bidalitako zirriborroak artelan bihurtuta bueltatzen zizkidaten artista horiek. Neurri batean, itsasoak daukan muga-izaera apurtu gura nuen. Lan horregaz nenbilela sortu zen Siriako gatazka, bai...

Zure obretan ez duzu edertasuna bakarrik bilatzen; errealitatea islatu gura duzu. Zer dela eta?

Literatura, arte-plastikoak eta, orokorrean, sorkuntza-lan denak jende askorengana heltzeko tresna boteretsua direla pentsatu izan dut beti. Kazetaritza-munduan kontu bera gertatzen da: zure iritzia daukazu, eman dezaitezazu, jende gehiagorengana heltzen zara... Artean ez du zertan denak polita izan behar. Estetikaz baliatuz, kontu mordoa kritika ditzakezu, eta jende askori pentsatzea eragin.

Zein mezu bidali gura duzu *Helmugak* erakusketagaz?

Askotan, egundoko garrantzia ematen diegu geure interesei; beste guztienak baino garrantzitsuagoak direla uste izaten baitugu. Baina, askoz gutxiagogatik, oso txarto dabiltzanak aurki ditza-kegu edonon. Horrenbestera ez diren gauzei ematen diegu garrantzia.

Berango

Etxebakoei aterpea emateko zerbitzua martxan da

Kalean lo egiten dutenei gaueko Kostatua emateko hitzarmena sinatu dute Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Hala, tenperatura baxuak direla eta, urtearen hasieratik Berangon zabalik dagoen aterpetxea erabiltzea gomen-datu dute. Hala ere, neurria behin-behinekoa dela zehaztu dute, «behin betiko proiektua eta kokapena ezarri arte». Berangoko alkate Anabel Landa zehaztu duenez, «gauero hiru lagun joan ohi dira aterpetxera»; bost lagun izan dira, gehienez, joan den urtarrilaren 4tik hona.

Eskiatzera joateko txangoa egingo dute, otsailaren hasieran

Aurton ere familia berangoztarrak Alto Campoora (Kantabria) eskiatzera joan ahal izango dira, otsailaren 4an, zapatuan. Interesa daukatenek, aldeztatik izena eman beharko dute, Berangoko kultur etxean; urtarrilaren 27ra arte dago horretarako aukera. Udalak azaldu duenez, autobuseko leku-kopuruak inskripzio-hurrenkeraren arabera gordeko dituzte, eta Berangon erroldatutakoek lehentasuna edukiko dute. Txangoaren prezioari dagokionez, helduek zein umeek 5 euro ordaindu beharko dituzte; erroldatuta ez daudenek, oster, prezioa galdetu beharko dute izena emateko orduan. Gaineratu dutenez, 12 urtetik gorako gazteak euren kontura, bakkari, joan ahal izango dira txangora.

Amilami ipuina, Pantzart taldeagaz, domeka honetan

Domeka honetan, urtarrilaren 29an, *Amilami* ikuskizuna eskainiko du Pantzart antzerki-taldeak, euskaraz, Berango Antzokian. Hitzordua 18:00etan ipini dute, eta sarrerak euro batean egongo dira. *Amilami* ipuin-kontaketa musikatua, Juan Kruz Igarbideren eleberrian oinarrituta dago. Lamien istorioak kontatzen ditu, gertaera fantastikoak gaur egungo jendartean kokatuz. Ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka dago istorioaren muinean eta, kontaketa barruan, usain-belarrak, sehaska-kantak, aho-korapiloak eta hainbat instrumenturen musika ere txertatzen dira. Euskal kultura herrikoia eta Senegaleko musika batzen ditu ikuskizunak.

Erandio



Laguntza ukatu zieten 29 pertsonari 2015ean, aurrekontu faltagatik. © ERANDIOKO UDALA

Gizarte-laguntzen epea zabaltzear dago

Eguaztenetik aurrera eskatu ahal izango dira Udalaren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.

Altzagako eta Astrabuduko Udal Gizarte Zerbitzuetan egin ahal izango dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) eskaerak, 09:00etatik 14:00etara. Udalak jakinarazi duenez, iaz eskaera aurkeztu eta baldintzak bete zituzten erandioztar denek jaso zituzten laguntzak. Erandio Udalak azpimarratu duenez, «erandioztar bat ere ez zen GLLetatik kanpo geratu» 2016an. Hala, 414 eskaera jaso zituzten iaz gizarte-zerbitzuek. Horien artetik bost espediente baztertu zituzten, baldintzak ez betetzeagatik; era berean, 3 pertsonak uko egin zieten laguntzei. Horrenbestez, 406 pertsonak jaso zuten GLLren bat; 470.572 euro bideratu zituzten, denera. Udalak 158.388

euroko diru-partida bat onartu zuen Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpena (312.184 euro) osatzeko, EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Udal Gobernuak azpimarratu duenez.

Joseba Goikouria alkateak nabarmendu du «guretzat garrantzitsuen delako pertsona bat ere ez dela bazterrean gelditu, aurrekontu nahikorik ez izateagatik. Beharrak agertu diren heinean, diru-partida berriak gehitu eta egundoko orekak egin ditugu laguntza horiei dagozkien funtsak ipintzeko, ulertzen baitugu garrantzitsuen pertsona horien beharrak zirela».

Eboluzioa

Urtez urte, eta iaz arte, gora joan da Gizarte Larrialdietarako Laguntzak osatzeko Udalak ipini duen diru-kopurua. Hala, 68.900 euro izan ziren, 2011n; 89.510,86 euro, 2012an; 123.607,24 euro, hurrengo urtean; 151.040 euro, 2014an; eta udal-ekarpena 220.971 eurokoa izan zen orain dela urte bi. ◀

Elikadura-ohitura egokiak bultzatu gura dituzte umeen artean

Erandio Udaleko Osasun Publikoa eta Kontsumo Sailak kanpaina berri bati ekin dio, 3 eta 5 urte bitarteko neska-mutilen artean elikadura-ohitura onak bultzatzeko. Jorge González zinegotziak azaldu duenez, «programaren helburu nagusia da Haur Hezkuntzako neska-mutilen gurasoak kontzientziatzea, nutrizio-heziketa egoki batek duen garrantziaren gainean. Heziketa hori umeen egungo eta etorkizuneko osasunaren ezinbesteko oinarria izango da». Udalak umeentzako ehunka mahai-oihal atera ditu, kanpainaren bitarteko legez. Oihaletan oinarritzko bost aholku inprimatu dituzte, modu grafikoan, «etxeko txiki-ek euren elikadura hobetzeko ohi-turak sustatzeko». Mahai-oihal bana eskatu ahal izango dute gurasoek. Eskaera udaletxean egin daiteke, baita Astrabuduko Hiritarren Arretarako Bulegoan ere (Meso kalea, 20). ◀

info+: Hiruka.eus/erandio

Helduen Hezkuntza Eten-gaberako matrikula, zabalik



«Emakumeen historia» ere ikas daiteke.

Erandio Helduen Hezkuntza Eten-gabeak (HHE) izena emateko epea zabaldu du daborduko, otsailaren 3ra arte. Zentroak aukera asko eskainiko ditu ikasturte berrirako: DBHko graduaren titulu ofiziala lortzeko ikastaro denak; unibertsitatara sartzeko probetarako prestakuntza; irakurtzen, idazten, zenbatzen ikastea eta hobetzea; kultura eguneratzea; Interneta, *power point*-a, ingelesa eta argazkilaritza digitala; eta beste hainbat tailer. ◀

info+: 944 673 504

Txango gidatua egingo dute auzolandegietatik, zapatuan

Zapatu honetarako, hainbat lagun-ek proposatutako plan paregabea egongo da aukeran, «2017a osasunez eta alaitasunez hasteko». Maitane Aragana antolatzaileak azaldu duenez, Erandio zeharkatzeko «ibilbide zirkularra» egingo dute, Altzagan hasi eta bertan amaitu. Zeharkatuko dituzten auzoetan «herriko ondarea, historia, kondairak» eta bestelakoak elkarrengaz ezagutzeko aukera izango dute. Txangoa 09:30ean hasiko dute itsasadarreko garabitik, horma-irudiaren albotik. Lau ordu pasatxoko ibilaldia Jado kalean amaituko dute, 14:00ak aldera. Ez dago aurretik izena

eman beharrik. Aranagak oroitarazi duenez, egingo duten laugarren ibilbidea izango da zapatukoa. Urte amaieran izan ohi da, baina pasa den abenduaren 31n ez zuten halakorik egin, egun berezia zelako. Aurtengo ibilbidean, Altzagatik Arriagara igoko dira parte-hartzaileak; handik Astikara eta bertan txoko okupako kideek prestatutako hamaiketakoaz gozatuko dute, proiektua aurkezten dieten bitartean. Ondoren, Lutxanan, bertako ortuen eta eskolaren proiektuak ezagutzeko aukera izango dute; azkenik, Altzagan, Kalezulo gaztetxearen nondik norakoak azalduko dizkiete. ◀

txakoli
mota
ganeTx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarianda parkea) Golerri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK
AINGARA

Aurrezki kutxa, 18-48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 · www.bordadesaingara.com

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESA, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com



Leioa

Leioaztarrek izateaz harro

Herriko gazteen parte-hartzea aztertu du Udalak, Partekatu proiektuaren bitartez.

Partekatu proiektuaren bidez, gazte leioaztarren parte-hartzearen inguruko diagnostiko «informala» egin gura izan du Udalak. «Leioako komunitateagaz identifikatzen diren, egitekotan zelan egiten duten, eta herria zelan sentitzen duten» ziren helburu nagusiak, Joxe Belmonte Hezkuntza eta Partaidetza teknikariak azaldu duenez. Ikerketa-lan hori egiteko, Etorkintza fundazioagaz elkarlanean jardun dira agintari leioaztarrek; aipatutako elkartea arduratu da neska-mutilakaz harremanetan ipintzeko bide egokiak topatzeaz. Bestalde, Buffalo Produktzioak taldeko kideek grabazioak eta bideoen muntaketa egin dituzte.

Harrituta eta pozik

Ia ordu erdiko ikus-entzunezko lan batean jaso dute horren emaitza, eta abenduaren 15ean aurkeztu zuten Mendibile Jauregian; gazteek, hainbat udal-agintarik zein teknikarik, eta



Neska-mutilei egindako elkarrizketakaz bideoa egin dute. © LEIOAKO UDALA

Etorkintzako kideek parte hartu zuten ekitaldian. Gainera, azterketaren ondorioakaz «harrituta eta pozik» dau-de agintari leioaztarrek. Partaidetza Sailak nabarmendu duenez, «Leioako gazteek euren komunitatean parte hartzeko gaitasun eta gogo izugarriak dauzkate. Aisian, kirolean, kulturean zein jendartean sare oso eraginkorra dauka Leioak, eta sare hori indartzeko potentziala itzela da».

Baiezatu dutenez, lonjetako eta kuadrilletako neska-mutilak euren artean harremanak dauzkate. Bestalde, «ideologia politikoez ez dituzte eu-

ren arteko harremanak oztopatzen», udal-agintarien berbetan. Baina, zailtza barik, bertoko gazteak leioaztarrek izateaz «harro» daudela jakiteak eragin du pozik handiena: «Leioa oso bizia da; lo-hiri kontzeptutik aldentu egin da», nabarmendu du Joxe Belmonte teknikariak. Udal iturriek emandako datuen arabera, 94 neska-mutilek eta 22 elkartek (zuzenean edo zeharka) parte hartu dute Partekatu proiektuan: Betiko ikastolak, Barandiaran institutuak, Lamiako Maskaradak, gazte-asanbladak eta Kantika Koralak, besteak beste. ◀



Lumak astindu

KOLDO TELLITU MEJIA
Ikastolen elkarteko lehendakaria

Iritsi da gure artera KiVa metodoa

Ikastoletan eskola jazarpenari aurre egiteko KiVa metodoa martxan jartzen ari ginen egun berean, UNESCOk munduko eskola umeen laurdenak jazarpena jasaten duela ondorioztatzen duen txostena publiko egin zuen, eta horrek argi erakusten digu berebiziko tamaina duen arazo baten aurrean garela. Izan ere aipatutako metodo horretan azpimarratzen den bezala, jazarpenak ez die biktimei soilik eragiten, erasotzaileei ere, eta azken batean erasoaren inguruko hezkuntza komunitate osoari ere bai.

Horregatik arazoa bideratzeko taldea inplikatu behar da, taldeak ematen baitio indarra erasotzaileari; batzuek, nolabait, teko babesa ematen diotelako, eta beste batzuek, ez ikusiarena egiten dutelako. KiVa Metodoak taldeko kide bakoitzak bere erantzukizuna zein den ulertzea du helburu, taldearen jarreraren aldaketarekin erasotzailea indarra galduz joango delako. Taldearekin batera ikastetxea ere inplikatu behar da Curriculumaren bitartez, KiVa zentroa garela gogorarazten duten elementuen presentziarekin eta jazarpen kasuak gertatzen direnean, modu hezitzailean aurre egin.

Ikastetxe bakoitzetik harago ere, hezkuntza sareek eta, orokorrean, gizarteak ere aurrera pauso bat eman beharra dute, horrela ulertu dugu Ikastoletan. Ezin genuen inora eramaten ez gintuzten dinamikak errepikatzen murgilduta jarraitu eta gure izpiritu eraldatzailerari jarraituz, eremu honetan ere eredu berritzaile baten aldeko apustua egin dugu: KiVa. Lehenengo egun hauetan oso suspergarria da ikasle guztiak honetan jartzen ari diren ilusioa ikustea, familien interesa eta langileen inplikazioa. Datorren maiatzeko inkestaren datuetan ikusiko dugu ze bilakaera gertatzen den. ◀

Gazteluetako irakasle ohia Bilbon epaituko dute

Bizkaiko Lurralde Auzitegian epaituko dute ikasle bati sexu-abusuak egitea egotzi dioten Leioako Gaztelueta ikastetxeko irakasle ohia. Hala ere, 40.000 euroko fidantza ezarri dio Opus Deiko ikastetxeko hezkuntza-zentroko maisua zenari Emilio Lamo de Espinosak, Getxoko Lehen Instantzia eta Instrukzio 5. epaitegiko buruak. Azken urtebetean bera arduratu da auzi horren instrukzioaz. Egunotan plazaratutako ebazpenean, «jarraikako sexu-abusu delitua» leporatzen dio epaileak Gazteluetako maisua izandakoari; «horretarako bere nagusitasunaz baliatu zen», Lamo de Espinosak dioenez. Akusatuak otsailaren 14an aurkeztu beharko du Bizkaiko Lurralde Auzitegian, Bilbon. Horren ostean erabakiko dute epaiketaren data. Hainbat iturrik adierazi dutenez, 10 urtera arteko espetxe-zigorra eska dezakete ustezko sexu-erasotzailearentzat.

Orain urte batzuk, 2013ko urtarri-lean, mutikoaren aitak ezagutarazi



Ikasle bati sexu-abusuak egitea egotzen diote.

zuen auzia, semeak ustez jasandako abusua hainbat komunikabidetan salatuz; ikastetxeak salaketei erantzun egokia eman ez ziela uste baitzuen. Haren berbetan, Gazteluetako irakasleetako batek sexu-abusuak egin zizkion mutikoari, hasieran 12 urte zituela, 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan. 2011n eduki zuten gurasoek horren berri, gazteak ikastetxera joateari uko egin zionean. Hala ere, familiak salaketarik ez ipintzea erabaki zuen, mutikoa auzia jasateko moduan ez zegoelako orduan; baina, adin-nagusi izatera heldu zenean, familiak kereila aurkeztu zuen Getxoko epaitegian. ◀

Agate Deuna sariketan izena emateko aukera, urtarrilaren 30era arte

Aurton 28 urte beteko ditu Leioako Agate Deuna Eguneiko Kanta Lehiaketak. Ohi den legez, maila bi egongo dira: 16 urte artekoen maila, eta adin horretatik gorakoena. Besteak beste, bost jarduketa-eremu ipini dituzte: Lamiako, Pinueta-Ibaiondo, erdigunea, San Bartolome (Artatza eta Artatzagana barne) eta Kandelazubiet-Udondo. Talde bakoitzak ondoen datorkion gunea aukeratu ahal izango du; zein inskripzio-orrian adierazi beharko dute. Hala, hilaren 30era arte egongo da izena emateko aukera, Kultur Leioan. Bestalde, antolatzaileek leku eta ordu zehatz batzuk esleituko dizkiote 16 urte artekoen talde bakoitzari, aukeratutako gunearen barruan; bertan abestu beharko dute. Ostera, 16 urtetik gorakoen taldeek Euskal Etxeen plazan abestu beharko dute. Sariei dagokienez, 350, 250 eta 175 eurokoak izango dira; otsailaren 11n, zapatuan, banatuko dituzte, 12:00etan, Kultur Leioako erakusketa aretoan. ◀

info+: infokultur@leioa.net



LABetik atera berri

**IRATXE
AZKUE REINALES**
LABeko Eskumaldeako
idazkaria

Biltzar Nagusira begira: LAB 4.0 gure garaia

Hauxe da sindikatuak aukeratutako goiburua aurten maiatzean egingo dugun 9. Biltzar Nagusirako. Ongi dakigu sistemak baduela bere 4.0 eredu diseinatu, neoliberalismo basati baino basatiago bat oinarri, produkzio sistemei eta kontsumo ereduak dagokienez. Argi daukagu kapitalismoan ez dagoela ondo bizitzerik, eta proposamenak eta alternatibak jarriko ditugu mahai gainean egoerari buelta emateko. Guretzat sozialismoa da bizitza on bat edukitzea ziurtatuko duen sistema. Espazio ezkertiar soberanista sendo bat behar dugu, eta euskal sindikalgintzaren ekarpenak erabakigarria izan behar du espazio horren eraikuntzan. Hain zuzen ere, Euskal Herri sozialista erakitzeke, feminismoa, ekosozialismoa eta independentismoa dira gakoak. Feminismoa ideologia transformatzailea delako eta bakarrik horrela ziurtatuko dugulako eraikitzen dugun sistema guztientzat izatea, gizonentzat zein emakumeontzat; ekosozialismoa ezin dugulako bizitza duina eta ona kontsumoan eta neurririk gabeko produkzioan oinarritu; eta independentismoa, sistema berri bat eraikitzeke behar beharrezkoa delako Estatu burujabe bat izatea, herriaren esku egoteko sistemaren gaineko boterea, Herria bere erabakiak hartzeko aske izateko.

Bada kapitalaren 4.0 kontzeptu zapaltzaileak LABen 4.0 dinamikaekin egingo du topo. Aurrez aurre izango gaitu, garaiko langile borroka eta aro berriko sindikalismoa ikur. «Gure garaia» dela aldarrikatu nahi dugu. Gogoeta prozesu oso bat egin dugu, gure eredu sindikala birpentsatzeko erronkarekin. Garai berri bat irekitzera goaz, eta langileak erdigunean egongo dira, LANGILE KLASEA hizki larriz aldarrikatzeko garaia da. ◀

Uribe Kosta



Edukiontzia sarritan bete-betetzen direla deitoratu dute.

Bilketa-zerbitzua dela eta, kezka

Paperaren eta kartoiaren bilketa-zerbitzu berria esleituko du Mankomunitateak. Bitartean, bere eginkizunak betetzeko eskatu dio Garbialdi enpresari Sopelako Udalak.

Azkenaldian herritar askok kritikatu dute paperaren eta kartoiaren gaikako bilketan Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak egindako kudeaketa; kontratu berriak hainbat «hutsune» ei dituelako eta kontratuko baldintzak bete ez ei dituelako. Sopelako udalerriak jasan ditu ondorio larrienak. «Edukiontzia sarritan pilatzen dira espalo eta kaleetan zehar zikinkeria arazoak sortuz», deitoratu du Sopelako Udalak. Horren aurrean, Mankomunitateak hainbat kontu argitu gura izan ditu: paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa-zerbitzuaren segimendu «sakona» egin dute; horri esker, 2016ko urtarilean kontratua hasi zenetik, zerbitzu horrek «hutsune garrantzitsuak» dituela egiaztatu da; «egoera hau txarrera joan zen udan bereziki». Horren ostean, joan den urteko azaroaren 25ean enpresa-arduradunagaz kontratuaren ebaz-

pena sinatu zuten. Hori dela eta, prozedura-agiriak prestatzeko azken fasean dago orain Mankomunitatea, paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa-zerbitzu elkartua kontratatzeko. Hala, lizitazio berria izan arte, gaur egun kontratua duen enpresak zerbitzua egoera berdinean eskaintzera «derrigortuta» dagoela ohartarazi dute arduradunek, «kontratazioa beste modu batera egitea ezinezkoa da eta». Bilketa-zerbitzuak eragindako arazoak zuzentzeko neurririk hartu ez izana ere ezeztatu du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. «Ordezkarik politikoei eta teknikoei zerbitzua uzten duen enpresagaz eguneroko harremana izan dute, momentu oro, zerbitzu egokia betetzea behin eta berriz eskatuz, eta herritarren ongizateaz arduratuta beti», gaineratu dute. Sopelako Udalak ere Garbialdi enpresari kontratua amaitu artean bere eginkizunak betetzeko eskatu dio. ◀

Hermosillak dio DBkoakaz adostu zela prozesua abiatzea

Sopelako Jauregizar plazako jolasparkea «arriskutsua» dela salatu zuen Denok Batera taldeak, hilaren hasieran. Horren harira, Udalak inkesta bat martxan ipini duela gogoratu du Gontzal Hermosilla Sopelako alkateak, eta ikerketa horrek hartu beharreko erabakien inguruko pistak emango dituela. Prozesu hori martxan ipintzea DBko zinegotziak adostutako erabakia izan dela dio Hermosillak, eta horren lehenengo emaitzak abenduan jaso zirela. Halere, DBren ustez, egindako ikerketa hori «hutsala eta funtsik gabekoa» da. «Dagoeneko bagenekiena eta Sopelako edonork ikus dezakeena bakarrik dauka barne ikerketak», deitoratu dute. Joan den urrian, 154 inkesta batu zituzten, guztira; Iturrieta, Gernika, Jauregizar, Urgitxieta eta Errekagane parkeen erabiltzaileen iritzia ezagutzeko helburuagaz, eta beharren zein erabileraren ereduak jasotzen dituen txostena lantzeko. ◀

Eskualdeko eskaintza turistikoak aurkeztu dituzte FITURen

Getxo, Gorliz, Plentzia eta Sopelako enpresen turismo-erakundeek aurkeztu dituzte egunotan Madrilgo Nazioarteko Turismo Azokan (FITUR). Udalerri horietako ordezkariak *Euskadi-Basque Country* izeneko erakustokian parte hartu zuten, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak ipini zuen erakusleho hori. Bertan, Bilbo eta Bizkaiko erakargarri turistikoak erakutsi ditu hilaren 18tik 22ra arte. Azoka horretan aurkeztu zuten *Bay of Biscay/Golfo de Bizkaia* gida berria, besteak beste, *Lonely Planet* egaz elkarlanean egindakoa. Aurtengoa 37. edizioa izan da, eta 231.872 bisitari eta 165 herrialdeko 9.605 enpresa egon dira denera. ◀

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service
Car Service

ander deuna batxilergoa
hau herikuntzatik

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

Uribe Kosta

Lau urte gaztetxeagaz dantzan

Plentziako Danontzat gaztetxeak laugarren urteurrena ospatuko du datozen egunotan.

Lau urte pasatu dira Plentziako Danontzat gaztetxeak ateak zabaltu zituenetik. Hori dela eta, gune autogestionatuak urteurreneko jaialdia antolatuko du hurrengo egunotan, hilaren 26tik 28ra bitartean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, egunean hasiko dute ospakizun-jaialdia. Egun horretarako, *Errepresioaren 11 aurpegi Sakanan* izenburuko berbaldua eskainiko dute, Altsasuko Herri Asanbladaren ekimenez, arrastiko 07:00etatik aurrera. Hurrengo egunean, barikuan, Fredi Paia eta Alaia Martinek bertso-doinua ipiniko diote gune-autogestionatuan egingo den afariari, 22:00etatik aurrera;



Domeka goizaldean amaituko da urteurrena ospatzeko jaialdia.

sarrerak 12 euroan daude salgai, lanbako eta ikasleentzat, 8 euroan. Azkenik, egun handiena zapatuan izango da. Hala, 17:00etatik aurrera, egitarau luzea egongo da; ordu horretan, Txan Magoak ikuskizuna egingo du, bertaratuko diren guztien gozamenerako.

Ostean, 19:00etan, Gure Esku Dago taldeko kideek Santa Agedako entsegua egingo dute, eta jarraian, 20:00etan, poteo-musikatua egingo dute Gorlizko kaleetan. Amaitzeko, urtemuga ospatzeko jaia egongo da gaztetxean, 00:00etatik aurrera. ◀

Egitaraua

Urtarrilak 26, eguena

19:00

Altsasuko Herri Asanbladaren berbaldua: *Errepresioaren 11 aurpegi Sakanan* goiburudun gaia izango dute berbabide.

Urtarrilak 27, barikua

22:00

Bertso-afaria egingo dute, Fredi Paia eta Alaia Martin bertsolariakaz.

Sarrera 12 euroan egongo da salmentan; ostera, langabeek eta ikasleek 8 euroren truke erosi ahal izango dute.

Urtarrilak 28, zapatua

17:00

Txan Magoak, *Txinbili txanbala* ikuskizuna aurkeztuko du.

19:00

Gure Esku Dago taldekoek Santa Agedako entsegua egingo dute.

20:00

Poteo-musikatua, kaleez kale, Gorlizen.

00:00

Jaia gaztetxean izango da.

Cantarranas ingurua hobetuko du Udalak

Udalerriko azpiegiturak hobetzeko guran, Barrikako Udalak hainbat proiektu martxan ipini ditu, San Telmo auzoko Cantarranas inguruan. Hala, Barrika Piragua Taldeko eraikina hobetu gura du, baita Gure Etxea eraikinaren barrualdea, besteak beste. Horrez gainera, kableen lapurretak saihesteko sistema abian jartzeko 7.800 euroko inbertsioa egingo du.

Daborduko, Gure Etxea izeneko eraikina hobetzeko proiektua martxan da: kanpoko azpiegitura zaharberritu dute; eta laster ekingo diote eraikinaren barrualdea egokitzeari, herritarrek erabiltzeko lokala izan dadin, oraindino ez zehaztu arren horren helburua zein izango den.

Horrez gainera, Gure Etxearen ondoko pabiloia hobetzeko lehiaketa aurkeztuko du Udalak. Hasteko, azpiegitura horretan egin beharreko lan guztiak zehaztuko ditu; ondoren, la-

nen esleipena egiteko prozesua martxan ipiniko du.

Bestalde, kableak ez lapurtzeko sistema berria martxan ipintzeko 7.800 euro bideratuko ditu Udalak. Sistema hori 2015ean ipini zuten martxan, udalerriko hainbat lekutan. Udalak jakinarazi duenez, emaitza «oso ona» izan da; sei lapurreta-ahalegin egon dira, eta horietako batean ere ez dute lortu kablea eroatea. Sistema horrek agintekoadroen blindajea babestea ahalbidetzen du; horrela, baimenik ez duen inork ezin ditu horiek manipulat. Izan ere, alarma-sistema bati konektatua dago, koadroa itxita dagoenean. Gailu horrek koadroen arteko komunikazioa kontrolatzen du eta komunikazio hori eten egingo du bakarrik lapurreta-saiakeraren bat egotekotan. Hori dela eta, sistemak edozein interbentzio ilegal detektatzea ahalbidetzen duela jakinarazi dute arduradunek. ◀

Euskara ikasteko tailerra antolatu du Lemoizko Udalak



Euskara ikasteko zein euskara-mailela hobetzeko ikastaroak antolatu ditu Lemoizko Udalak. Eskola horiek gurasoentzat dira, «seme-alabakaz euskaraz berba egin ahal izateko», besteak beste. Interesa dutenek Sopelako udal-euskaltegian izena eman dezakete, urtarrilaren 26ra arte. Ikastaroaren prezioa 50 eurokoa da eta eskolak otsailaren zan hasiko dira. ◀

Urdulizko etxebizitza tasatuen behin-behineko zerrenda

Etxebizitza tasatu bat lortzeko 57 eskaera onartu ditu Urdulizko Udalak. 37 etxebizitza eraikiko dituzte, guztira, Atzeragaine eremuan, Iparralde kiroldegia eremuan. Emandako datuen arabera, 10 lagun prozesutik kanpo lotu dira: dokumentazio-faltagatik, diru-sarrera nahikorik ez izateagatik, beste etxebizitza bat jabegoan


izateagatik edo zozketan parte hartu gura ez izateagatik. Hala ere, horiek helegitea aurkeztu ahal izango dute urtarrilaren 27a baino lehenago. Ostean, behin betiko zerrenda osatuta egonda, Udalak informazioa bidaliko dio proiektuaren sustatzaileari, SAK kooperatibari, berak egin beharreko zozketa egin dezan. ◀



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!



Portu Zaharra kalea 35
48001 Algorta-Geloa
Tf: 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



· Odontologia orokorra
· Ortodontzia
· Periodontzia
· PADI

Bidebarri 27, behea eskuina. ALGORTA · 94 430 76 96

hirukagenda

Uribe Kostako astekaria

2017ko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era arte



Shane McGowanen gibelak ikuskizuna eskainiko dute Unai Elorriaga idazle algortarrak eta Gibelurlinek musika-talde uribekostarrak.

LEIOA

Sei ikuskizunez gozatzeko aukera, Kultur Maratilan

Otsailaren 1etik 5era sei ikuskizun egongo dira, Kultur Leioan, Artedrama plataformak eta Leioako Udalak antolatuta. Hala, lehenengo egunean, *Amorante* lana eskainiko du Iban Urizar musikariak. Hitzordua 20:00etan ipini dute, erakusketa-aretoa; sarre-*ra*, doakoa. Biharamunean, Beheko Larraine taldearen *Atte hil aurretik* antzezlanak ikusteko aukera egongo da,

20:30ean, entzungelan, 3-6 euroren truke. Egitarauari jarraituz, otsailaren 3an, barikua, *Hariak* dantza-ikuskizuna taularatuko du Ertza taldeak, 20:30ean, entzungelan; sarrera, 5-10 euroan. Zapatuan, ostera, zita bikoi-tza iragarri dute: ATX Teatroa konpainiaren *Fakia* antzezlanak, 20:30ean, entzungelan, 3-6 euroan; eta *Shane McGowanen gibelak* ikuskizuna, Unai

Elorriaga idazle algortarrak Gibelurlinek musika-talde uribekostarragaz sortutako lana, 22:00etan, entzungelan; 4-8 euroan. Amaizeko, otsailaren 5ean, domekan, Ruper Ordorikak kontzertua emango du, 19:00etan, entzungelan; 6-12 euroan. Kultur Maratilaren emanaldi guztietarako bonuak 30 euro balio du. ◀

info+ www.artedrama.com/kultur-maratila.html

ANTZERKIA

URTARRILAK 28, ZAPATUA

Las mujeres sabias

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Txirlora antzerki taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 1 euro.

URTARRILAK 29, DOMEGA

Amilami

18:00 | Berango Antzokia | Berango

Ipuin-kontaketa, Pantzart antzerki taldeagaz. Umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 1 euro.

BERBALDIAK

URTARRILAK 26, EGUENA

¿Cómo ayudarles en las tareas escolares, si no sabemos euskera?

16:45 | Zipiriñe ikastetxea | Sopela
Uribe Kostako Mankomunitateak eta Zipiriñeko gurasoen elkarreak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

No sabemos euskera. ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos e hijas?

18:30 | Romo ikastetxea | Getxo
Iñaki Eizmendi pedagogo eta soziolinguistika adituagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

URTARRILAK 27, BARIKUA

Indomable liburuen aurkezpena, idazleagaz

19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo

Mujeres con Voz elkarreak antolatuta. Fátima Djarra Sani liburuen egileak parte hartuko du. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

URTARRILAK 28, ZAPATUA

Txiapas: EZLN eta brigadistak

12:00 | Branka taberna (Romo) | Getxo

Txiapasekin plataformak, Giltza formakuntza-taldeak eta Lumaltik Herriak erakundeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

DANTZA

URTARRILAK 27, BARIKUA

AIREnoAR

20:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

AIREnoAR taldeagaz. Sarrera: 5-10 euro.

DEIALDIAK

URTARRILAK 31, MARTITZENA

Herri-egaldeketa esateko

Emakumeen lege iraultzailea

Branka Herriko Taberna (Romo) | Getxo

Txiapasekin plataformak, Giltza formakuntza taldeak eta Lumaltik Herriak erakundeak antolatuta. Sarrera, doan.

OTSAILAREN 8RA ARTE

Instantes

Algortako kultur etxea | Getxo

Sergio Sánchez Isasiren marrazkiak, tintaz egindakoak. Asteleheneretik zapatara. Doan.

IKASTAROAK

URTARRILAK 31, MARTITZENA

Argazki-edizioa

19:30-21:00 | Atxutegi kalea, 15 | Erandio

Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Doan.

KONTZERTUAK

URTARRILAK 26, EGUENA

Romo's Aires (tangoa)

20:00 | Silver's Tavern (Algorta) | Getxo

Getxon Zuzenean zikloa. Sarrera, doan.

URTARRILAK 27, BARIKUA

Juan Crisóstomo de Arriaga kontserbatorioiko ikasleak

18:00 | Areetako musika-eskola | Getxo

Sarrera, doan.

Abreu, harizko lautotea

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Erandioko Musika Eskolak antolatuta. Doan.

URTARRILAK 31, MARTITZENA

Flauta-entzunaldia

18:30 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Erandioko Musika Eskolak antolatuta. Doan.

ZINEMA

URTARRILAK 26, EGUENA

Siempre Alice

18:00 | Landa doktorea, 3 | Sopela

Itzartu emakumeen elkarreak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

URTARRILAK 28, ZAPATUA

Mascotas

17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Umeentzako animazio-filma. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Peppa Pig: las botas de oro


18:00 | Kultur etxea | Urduliz

Euskal Herria, 20. ALGORTA - Tel. 688 857 343 -  Txikibolasalgorta


Matrikulazioak 2016/17

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako datorren ikasturteko matrikulazioen garaia da. Hona hemen pasa den ikasturteko matrikulazioen datuak, Bizkaikoak eta eskualde-mailakoak, horiek herriz herri banatuta. Eskualdean lau eredu eskaintzen dituzte zentro publikoek zein pribatuak.

Matrikulazioak Uribe Kostan



Matrikulazioak Bizkaian



D eredu aukeratuena, eskualdeko herri denetan

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 2017/18 ikasturteko matrikulazioak egiteko ordua heldu da. Kontuak hala, urtarilaren 30etik otsailaren 10era bitartean, izena emateko aukera egongo da, online zein ikastetxeetan bertan, eskualdeko zentro publikoetan zein pribatuak. Gure eskualdean, herri bakoitzaren arabera, hizkuntza-eredua kontuan hartuta, matrikulatzeko lau aukera daude: A eredu (gaztelaniaz), B eredu (elebiduna, gaztelaniaz eta euskaraz), D eredu (euskaraz) eta X eredu (bestelako hizkuntza bat; gure kasuan, ingelesez).

Aurreko matrikulazio-garaian, 2016/17 ikasturtean, 15.823 ikasle izena eman zuten; horien arteko %64k D eredu aukeratu zuen. Bizkai-mailan, berriz, zenbatekoa handiagoa izan zen: %70. Gaztelaniaz eta euskaraz ikasteko ereduak, ia laurden batek eman zuten izena Bizkaian; gurean, ordea, %21,5 izan zen B ereduaren aldea. A ereduari dagokionez, Bizkaian 5.143 ikasle izena eman zuten gaztelania hutsean ikasteko; horien ia erdia Uribe Kostakoak izan ziren, Getxokoak eta Leioakoak, hain zuzen ere. Gai horietan dagokionez, portzentaia oso txikiak izan ziren Bizkaian zein gurean, %1,5 ingurukoak.










Matrikula egindako zentroaren tipologiari begiratu gero, portzentaia oso antzekoak izan dira zentro publiko zein pribatuak egindako izen-emateak Uribe Kostan, %46,9 eta %53,1, beren-beregi.

A eredu bizirik, Getxon eta Leioan

Tauletan ikus daitekeenez, D eredu da nagusi Uribe Kostako herri denetan, zentro publikoetan zein pribatuak. Herri txikietan, gainera, euskarazkoa izan zen aukeraturako eredu bakarra, Berangon ez ezik, ia erdiak ingelesez ikasteko aukera egin baitzuen iaz. Herri handietan, portzentaia bestelakoak izan ziren, eta nabarmentzekoak dira Getxoko eta Leioako kasuak. Herri biak dira A ereduaren ikasteko eskaintza duten bakarrak eskualdean; eredu horretan 2.057 neska-mutilek izena eman zuten, guztira. Horien arteko 1.805 matrikula zentro pribatuak izan ziren.

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila

Matrikulazioak herriz herri



San Nikolas ikastola

Hezkuntza sendo eta komunitarioa

Etengabeko hobekuntza pedagogikoa darabil San Nikolas ikastolak. Horren adibide da KiVa, bullyingaren aurkako tresna.



San Nikolas ikastola, etengabe gaurkotzen den sistema pedagogikoa duen hezkuntza proiektua da, bere egunerokotasunean langileak, gurasoak eta ikasleak integratzen dituena.

Ikastolak kalitatea eta garapenarekin konpromiso sendoa dauka, irakasle eta langileriaren formakuntza eta berrikuntza proiektuak etengabe sustatzen dituelarik. Hori horrela, ikastolaren helburua, hezkuntza, gizarte eta euskal kulturaren erreferentzia izatea da, hezkuntza eta kudeaketa proiektu sendoa eskainiz, kalitateko sistema batekin, eta gaurko zein etorkizuneko guraso eta ikasleen beharrian eta nahiak aseiz. Hori dena, gizarte eragile ezberdinen inplikazio eta parte-hartzearekin.

Haur Hezkuntzako ikasle, irakasle eta gurasoak "Konfiantzaren Peda-

gogia" proiektuan daude murgilduta, guztion artean gehiago ikasi, eta gure umeei hobeto jokatzeko familia mintegiak eginez.

Aurten ere, ikastolak eskolako jazarpenaren ebidentziaren aurrean bulling kasuak ekiditeko KiVa proiektu Finlandiarra jarri du martxan lehen hezkuntzan. Bizi dugun digitalizazio garaian, ikasleak IKTetan trebeak izatea da beste helburuetako bat, horregatik, DBH osoa EKI proiektu digitalen barruan dago murgildua. Euskara eta bere erabileraren sustapena errota izan arren proiektu eleaniztuna du ikastolak, ikasgaiak ingelesez ere lan-tzen direlarik.

Orientazio zerbitzua ere bada-go hala nola, kirol campusak, kultur ekintzak eta eskolaz kanpoko jarduerak ere egin daitezke. ◀

info+: www.sanikolas.eus

Santísima Trinidad ikastetxea

Kalitate handiko heziketa integrala

Tradizioa eta berrikuntza uztartzen ditu Algortako *Trinitarias* ikastetxeak; Haur Hezkuntzan eredu hirueleduna abiatu dute.



Algortako Santísima Trinidad ikastetxea, *Trinitarias* legez ezaguna, hezkuntza-komunitate bat da, eta 60 urte baino gehiagoko eskarmentua dauka.

Zentroak heziketa pertsonalizatua, berritzailea eta kalitatezkoa eskaintzen du. Proiektuaren ardatza da ikasleei formakuntza integrala ematea, «pertsonaren, bizitzaren eta munduaren ikuskera kristauaren arabera». Hala, «jendartea eraldatu eta hobetze» prestatzen dituzte gazteak, familien eta ikastetxearen arteko harreman hurbilari esker.

Trinitariasek honako hezkuntza-mailak eskaintzen ditu: Haur Hezkuntza (1-2 urteko eta 3-5 urteko zikloak), Lehen Hezkuntza eta DBH. Haur Hezkuntzan proiektu hirueleduna abiatu dute eta beste mailetan B hizkuntza-ereduan ikas daiteke. Besteak beste,

ikasgelatik kanpoko honako eskaintza dauka Trinitariasek: ikasle goiztiarren-tzako arreta 08:00etatik aurrera, jantokia, liburutegia, erabilpen askotariko patioak edo orientazio-zerbitzua ikasleentzat eta sendientzat. Era berean, kultur jardueri garrantzia ematen diete: Inauteriak, Agate Deuna, Euskara Eguna, hezkuntza-egonaldiak aterpeetan, txango ekologikoak, euskarazko jarduerak, ingurumen-heziketa, zumba, gitarra, margoa, jolasak, sorkuntza, euskara-tailerrak eta abarrak. Kirola ere ohiko osagaia da zentroaren bizitzan; igeriketa, futbola, saskibaloia eta judoa praktika daitezke.

Zentroak ingeleseko eskaintza zabala du eta Trinity College-ren ziurtargiria ateratzeko edo Hizkuntz Eskola Ofizialaren titulura aurkezteko aukerak ematen ditu. ◀

matrikulazioa: Trinitariasalgorta.net/admisión

San Nikolas IKASTOLA

Ikastolan denok gara gu! Ezagutu gaitzazu

Algorita

Telefona: 944 305 478 Faxa: 944 305 477

www.sanikolas.eus ikastola@sanikolas.com

Trinitarias ALGORTA

Algortako Etorbidea 108, 48991 Getxo
Tel: 94 491 10 85
Zuzendaritza: colmat01@yahoo.es
Idazkaritza: trinitariasecretaria@yahoo.es

saitu zuzen trinitarias ALGORTA entza en ti

Mesedeetako Andra-Mari



Zu zara etorkizuneko hazia 50 urtez ikasleak hezten, 1966-2016

Leioako erdigunean bertan dago ikastetxea. Itunpeko ikastetxe pribatua eta elebiduna da, euskaldun jendartean murgilduta dagoena, plurala eta balioetan hezitzailea.

Karitateko Mesedeetako sero-
rek sortutako ikastetxea da
Andra Mari zentroa: berton,
ikasleak dira ekintzaren hel-
buru nagusia, eta euren izaera esparru
denetan gara dezaten bilatzen da.

Ikastetxearen antolatzeko moduak
honako hauek ziurtatzen ditu: batetik,
parte-hartzea sustatzen da, horretarako,
hezkuntza-komunitateko kide guz-

tiak baloratu eta horien motibazioa
bilatzen da; bestetik, irakasleen eten-
gabeko prestakuntza eta metodologia
berritzaileen aldeko apustua egiten
da. Azkenik, egoki kudeatzen dituz-
te proiektua aurrera ateratzeko beha-
rrezko baliabideak.

Estrategia eta balioak

Hezkuntza Proiektuak balioetan hez-

tea du oinarri, hau da: ikasleei lagun-
tzea gizakiaren existentziari zentzua
ematen dioten oinarritzko galderei
modu aske eta autonomoan erantzut-
eko prozesuan.

Dibertsitatea dakarten heltze-eta-
pa ezberdinak errespetatzen dira, hez-
kuntza-komunitateko kideen artean
eratzen diren harremanetan zein ebo-
luzio-prozesuetan. Jarrera lagunkoia
eskaintzen da, eta hizketa-giroaren
zein ulermenaren alde egiten da. As-
kotarikotasuna ikasteko aukera beza-
la ulertzen da, eta pertsonarekiko eta
komunitatearekiko konpromisotzat
dute dibertsitateari eskaintako arreta.

B eredua

Adin-tartea

1-16 urte

Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntza 1. Zikloa:

09:00-12:00 / 14:30-16:30

*Sartzeko ordutegi malgua: 7:30etik
10:00etara. Irtezeko ordutegi malgua:
16:30etik 18:00etara.

Haur Hezkuntza 2. Zikloa eta Lehen Hezkuntza:

09:00-12:30 / 14:30-16:30

Bigarren Hezkuntza (DBH):

08:30-12:40 / 14:30-16:30

*Ostiraletan: 08:30-14:00

Zerbitzuak

- Autobusa eta jantokia.
- Hartzaindegia.

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko kultur jarduerak antolatzen dira eguerdi eta arratsaldeko ordutegian.
- Familiei eta ikasleei zuzenduriko hezkuntza-orientabidea eskaintzen da.

Izena emateko jarraibideak

- **Online:** Eusko Jaurlaritzaren webgunearen bitartez: www.hezkuntza.net

- **Idazkaritzan:** 9:00-13:00 eta 14:30-17:00 ordutegian.



Betiko ikastola



Hezkuntza eraldatzen

Berritasunean oinarritutako ikastola

Eremu berritzaileak, teknologia berritzailea, eskola-jazarpenari aurre egiteko KiVa proiektu berritzailea, ikasmaterial berritzaileak, eduki digital berritzaileak... Hezkuntza berritzailea du oinarri Betiko ikastolak.

Leioako Betikok ikastola-ereduaren lau ezaugarri nagusiak hartzen ditu. Kontuak hala, ikastola honek hezkuntza eredu propioa garatzen du; ikaslearen irteera profiletik abiatuta, marko pedagogiko propioagaz, euskal curriculumean eta konpetentzietan oinarritutako ereduari jarraitzen dio. Euskalduna da; Betikon euskaraz bizi

dira, euskaraz bizi gura duten herrian. Herritarra da; hezkuntza zerbitzu publikotzat ulertuta, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea izan gura du Betiko ikastolak. Kooperatiba da; gurasoak dira kooperatibistak eta gizarte partaidetza eta erantzukizuna ditu ardatz: «Ikastolen Elkartearen Europar kooperatiban batzen gara beste ikastola guztiekin», azaldu dute Be-

tikoko arduradunek. Ikastola eraldatzailea da; Betikon etengabe dabilten euren eskaintza pedagogikoa berritzen, konfiantzaren pedagogia eta EKI bezalako proiektuakaz lanean, edo oraintsu martxan ipinitako KiVa ize-nekoagaz. Arkitektonikoki ere eraldaketak egin dituzte, eremuak berrituz eta zabalduz. Gainera, jantoki propioa eta autogestionatua ere badute; elikadura-prozesu osoa bertan egiten dute.

Hala ere, argi eta garbi diotenez, aldatzen ez den zerbait ere badago Betiko ikastolan: «Euskara eta euskal kulturaren mesedetan dihardugu, betiko moduan».

Ikastola-eredua

Adin-tartea

0-16 urte

Eskola-ordutegia

Haur Hezkuntza: 08:00-18:30

* Ikasturtean zehar haur hezkuntzako ikasleentzat goizeko 08:00etatik arrastiko 06:30era arte haurtzaindegiz-zerbitzua dago. Zerbitzua doakoa da. Ikasleak askaria jasotzeko aukera ere badago.

Lehen eta Bigarren Hezkuntza: 09:00-16:30

Zerbitzuak

- Autobusa: San Inazio, Erandio, Astrabudua, Goierri, Leioa, Lamiako, Itzabaltzeta/Romo, Areeta, Algorta, Berango.
- Jantokia: bazkaria ikastolan bertan prestatzen da, bertoko produktuez osatutako menu orekatuak eskaintzen dira.
- Haurtzaindegia.

Eskolaz kanpoko zerbitzuak

- Eskolaz kanpoko jarduerak asko antolatzen dira eguerdian eta arrastietan; eskola-kirola, saskibaloia, eskupilota eta futbola, berbarako, arrastietan.

Izen-ematea zabalik dago beti!

Hitzordua eskatzeko 944 642 364 zenbakira deitu. Bilerak pertsonalizatuak eta ikastola ezagutzeko aukera izango dituzue.



Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO

IKASTOLA



ikastolenelkartea



Artaza auzoa, 84. LEIOA . 944 642 364 / 944 643 307 . info@betikoikastola.net . www.betikoikastola.net

Hire Ondoan pedagogia-zentroa

«Konponbidea, lehenbailehen»

Neska-mutilak ikasten laguntzeko oinarritzko tresna dira harreman pertsonala eta hurbiltasuna, Hire Ondoan zentroan.



Iranzu Arroitauregi pedagogoak «garrantzi handia» ematen die ikasleen emozioei, arretari, erlaxazioari eta kontzentrazioari. Hire Ondoan pedagogia-zentroko buruak azaldu duenez, ikasten hasi baino lehen, arreta eta kontzentrazioa mantentzeko jarduerak egitea oso garrantzitsua da edozein ikasgaitan; «emaitza onak ematen ditu eta erraza da lantzen». Era berean, dioenez, umeek «emozioak izan behar dituzte tartean ikasteko, bestela ez dute berdin ikasten. Umea motibatu eta emozionatu behar dugu ikasteko; hala, dena askoz hobeto joango da». Halere, Arroitauregiren lana askotan umearen inguruan alerta piztu denean hasten da: «eskolan zailtasunak agertzen direnean, nigana etortzen dira gurasoak, ikasketetan zailtasunak daudenean». Hire Ondoaneko arduradunak gomen-

datu du profesionalengana jotzea trabaren bat topatuz gero, «lehenbailehen; ez utzi. Askotan gerorako uzten da eta batzuetan berandu da, umea autotestimu aldetik oso baxu baitago. Antzematen dugun unetik, konponbidea bilatzen ahalegindu behar dugu». Horatik aurrera, Arroitauregik aztertzen du zer doan txarto eta zein den arazoaren zergatia: «proba batzuk egiten ditugu, baita elkarrizketa batzuk ere, ikastolakoakaz eta gurasoakaz». Ondoren, tratamendua ematen du. Lehen Hezkuntzan arazoak batez ere irakurketagaz eta idazkeragaz lotuta daude, «berekala ikusten dira horrelakoak». Arreta falta, kontzentrazio eskasa, dispertsioa, eta atzerapena ere ohikoak dira. Hire Ondoan batez ere Lehen Hezkuntzako ikasleei ematen diete arreta, baita nagusiagoei ere bai, bai euskaraz, bai gaztelaniaz ere. ◀

Jado Ikastetxea

Berrikuntzaren aldeko apustua

D eredua abiapuntu izanda, Jadok eleaniztasuna du helburu. Urte bateko eta bi urteko umeentzat ikasgela berriak egin ditu.



XXI. mendeko irakaskuntzaren oinarria berrikuntza denaren irizpidea erabat barnaturik du Jado ikastetxeak. Gizartea aldatuz doa eta, bilakaera geldiezin horren ondorioz, sortzen diren aldaketetara heziketa ere egokitu behar da, metodologia berriak garatuz eta baliabide teknologikoak berrituz.

Ildo horretatik, Jado ikastetxearen Hezkuntza Proiektua orekatua da arlo guztietan, eta diseinatu da Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHren beharrak kontuan hartuz. Bere proiektua adimen-mota guztien garapenean datza (logikoa, linguistikoa, korporala, musikala, espaziala, naturalista, barne pertsonala eta pertsonen artekoa), eta estimulazio goiztiarra ere lantzen da, urte batetik aurrera.

Gainera, ikasleen arteko lan kooperatiboa garatzeko prozesuan buru-

belarri dabilta, talde-lana oso eraginkorra baita ikasleen ezagutze-maila eta hainbat gaitasun garatze aldera.

Ikasgelako jardueretan teknologia berrien erabilera ohikoa da. Baina berrikuntzak ez dira metodologian soilik egin. Instalazioak ere etengabe berritzen dituzte; ikasturte honetan, urte bateko eta bi urteko umeen gelak berritzatu dituzte, baita ikasle txikienentzako psikomotrizitate-gela ere.

Hizkuntzari dagokionez, Jadok eleaniztasuna du helburu, D eredua abiapuntu izanda. Erandioko egoera soziolinguistikoaz jabeturik, euskararen erabilera bultzatzeak berebiziko garrantzia duelakoan dago Jado; beraz, euskal kultura eta euskararen aldeko ekimenetako antolakuntzan (Korrika, Euskararen Eguna, Kanpomartxo, eta abar) esku hartzen du, beste eragile euskaltzale batzuek batera. ◀

94 612 16 98
aldapa, 3 algora



Hire Ondoan Zentru Pedagogikoa

hire ondoan
PEDAGOGIA

Astelehenetik barikura
Hitzordua aurrelik hartzea komeni da

iranzu arroitauregi gutierrez
pedagogia lizentziadun

Haurreskola (1-2 urte)
Irailak 1- uztailak 30
Gabonetan eta Aste Santuan
Eleaniztasun Proiektua
Goiztiarrentzako gela (8:00- 9:00)
Jantokia
Eskolaz kanpoko jarduerak
Giro hurbila

jado
kastetxea

Geurea delako!

Urte 1etik 16ra 944 672 558 - www.jadoikastetxea.com - ERANDIO

Aixerrota BHI



Helbidea: Santa Marina Haitza, 14
48993 Getxo

Telefono-zenbakia:
944 911 786

E-maila:
015109aa@hezkuntza.net

Webgunea:
www.aixerrota.hezkuntza.net

Adin-tartea:
11-18 urte

Irakaskuntza euskalduna eta pedagogia berritzailea izan dira Aixerrota institutuaren ezaugarri nagusiak, 1983an sortu zenetik. Gaur egun, B eta D ereduak eskaintzen ditu. Proiektuak pertsonaren hezkuntza integrala du helburu; zeregin horretan oinarritzko balioak dira errespetua, as-

katasuna eta autonomia pertsonala. Kulturaren balio integratzailea ardatz hartuta, bizikidetzarako eta komunikaziorako elementu nagusia da euskara. Gaur egun, proiektu asko dauzkate martxan, horien artean: Agenda 21, IKT, Normalkuntza, Sare Hezkuntza eta Eleaniztasunerantz. ◀

Izena emateko bideak

Online edo ikastetxeko idazkaritzan: 09:00-13:30 / 15:00-16:30 (eguen eta barikuetan izan ezik).

info+: www.aixerrota.hezkuntza.net



Artatza-Pinueta HLHI Ikastetxea



Helbidea: Artatza auzoa, 81
48940 Leioa

Telefono-zenbakia:
944 638 429

E-maila:
014331aa@hezkuntza.net

Webgunea:
www.artatzapinueta.hezkuntza.net

Adin-tartea:
2-12 urte

Artatza-Pinueta D ereduko ikastetxe publikoa da, lerro bakarrekoa eta familiarra. Urteetako hainbat berrikuntza fisikoren eta metodologikoren ostean, eskola Heldutasun Teknologikoa eta Ikas komunitate sareko parte da 2004. urtetik; horrela, ikastetxeko komunitate osoaren

parte-hartzea bultzatuz. Gaur egun go jendartera moldatzeko prestakuntza duen ikasleria euskalduna hezteko dute erronka nagusitzat. Metodologia aktiboa eta parte-hartzailea eskaintzen dute, euskal kultura bultzatuz, giro atseginean murgilduta eta aniztasunari erantzuna emanez. ◀

Izena emateko bideak

Online edo ikastetxeko idazkaritzan. Orduetgia zehazteko telefonoz deitu.

Sendi berriek banakako hitzordua eskatzeko aukera daukate. Telefono-zenbakia: 944 638 429.



Uribe Kosta BHI



Helbidea: Gatzamina, zk.g
48620 Plentzia

Telefono-zenbakia:
946 571 040

E-maila:
uk@uribekostabhi.com

Webgunea:
www.uribekostabhi.com

Adin-tartea:
12-18 urte

Nerabeakaz eta gazteakaz D eredu-
an lan egiten duen institutu publikoa da Uribe Kosta BHI; eleaniztasuna eta sare-hezkuntza dira bere proiektuaren oinarriak. Ikasketako kooperatiboa eta parte-hartzailea eskaintzen du ikastetxeak, banakako trebeziak eta gaitasunak bultzatzeko

asmoz. Ikasgelez gainera, liburutegia, informatikako hiru gela eta *chrome-book* gela bi, hainbat laborategi, gimnasioa eta kirolean jarduteko patio estalia zein estaligabea dauzka, besteak beste. Gaur egun, martxan daukate hamaika proiektu, horien artean: Agenda 21, Nolega eta Bidelaguna. ◀

Izena emateko bideak

Online edo ikastetxeko idazkaritzan. Orduetgia: 09:00-16:00.

Telefono-zenbakia: 946 571 040. Helbide elektronikoa: uk@uribekostabhi.com



Astekaria eguaztenero
zure e-mailean; zozketak
astean behin; zorion-agurrak,
umeentzako txokoa,
sailkatuak, eskelak...
merkeago!

Urtean,
35€

hiruka zaitez!

...eta abantaila askoz goza egizu!



hiruka.eus/harpidetza/laguna/ ▶ 944 911 337 ▶ hirukakoop@hiruka.eus
HIRUKA Koop.elk. Martikoen kalea, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearekin harremanetan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko. Bestelako erabilpenik erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak nahi duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus



BERANGO

Mozorro-desfilean izena emateko aukera

Ludotekagaz batera, otsailaren 25ean egingo duten aratuste-desfilean parte hartu gura duten umeek izena emateko aukera edukiko dute urtarilaren 30era arte. Gurasoak ere joan ahal izango dira, 3 euro ordainduz gero. ◀

GETXO

Miren Gorrotxategi idazlea, UKITXen

Gaur, urtarrilak 26, Algortako kultur etxea bisitatuko du Miren Gorrotxategi idazle azpeitiarrak, 33 *ezkil* eleberriaz berba egiteko. Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak antolatutako saioa 19:30ean izango da; sarrera, doakoa. ◀

GORLIZ

Eskulanak egingo dituzte ludotekan

Urtarrilaren 31n, martitzenean, azeri-txotxongiloa egiten ikasteko aukera izango dute 5 eta 12 urte arteko umeek, Gorlizko kultur etxeko ludotekan. Neska-mutilek ateak zabalik izango dituzte 17:30etik 19:30era; sartzea, doakoa. ◀

URRUGOITIA

19:30 | **Gobela ikastola (Neguri)** | **Getxo**

Getxoko Gure Esku Dagok antolatuta. Doan.

ERAKUSKETAK

URTARRILAREN 27RA ARTE

Denboran zehar bidaia

Uribe Kosta institutua | Plentzia

Bertoko ikasleen argazkiak. Sarrera, doan.

URTARRILAREN 31RA ARTE

Levitation

Algortako kultur etxea | Getxo

Vanesa Piresen argazkiak. Astelehenerdik zapatura. Sarrera, doan.

Umeentzako animazio-filma. Gaztelaniaz.

Sarrera: 3,50 euro.

Belleza oculta

20:15 | Kultur etxea | Urduliz

Filma 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz.

Sarrera: 4,50 euro.

La maldición de Mona Lisa

21:00 | Getxo taberna (Algorta) | Getxo

Garrobi elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz.

Sarrera, doan. Izen-ematea: info@garrobi.com

URTARRILAK 31, MARTITZENA

El botón de Nacar

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo zineforuma. 12 urtetik gorakoentzat.

Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

Testu barik Markeliñek familia osoarentzat prestatutako antzezlanak. © MARKELINE



Euria antzezlanak, Markeliñegaz

Markeliñe antzerki-taldearen *Euria* ikuskizunak berbabide ditu zerbait maite eta galtzen dugunean gertatzen zaiguna eta sentitzen duguna. Zerbait aldatu dela ulertzeko eta onartzeko behar dugun denbora nekagarri horren gainean egiten du berba *Euria* lanak. ◀

Noiz: Urtarrilak 29, domeka.

Ordua: 18:00

Non: Areetako Andrés Isasi musika-eskola.

Sarrera: 5 euro.

GETXO

Fetén Fetén taldeak joko du Neguko Bidaia zikloaren barruan

Otsailaren 25era arte, Neguko Bidaia kontzertu-zikloaren bederatzigarren edizioa egingo dute, zapatuero, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Emanaldi bakoitzeko sarre-raren prezioa 5 eurokoa izango da; 3 eurokoa, ikasleentzat. Hala, urtarilaren 28ko saioan, Burgosko Fetén Fetén folk-bikoteak joko du; kontzertuaren ostean, berbaldia egingo da. ◀



Jorge Arribas eta Diego Galaz. © FETÉN FETÉN

PLENTZIA

Txan magoak saioa eskainiko du, Euskara Agendan

Plentziako eta Gorlizko Euskara Agenda bateratuaren barruan, zapatu honetan, urtarilaren 28an, *Txinbili txanbala* ikuskizuna eskainiko du Txan magoak. Hitzordua 17:00etan ipini dute, Plentziako Danontzat gaztetxean; sarrera, doakoa. Otsailaren 10ean, berriz, zirku-jaia egingo dute, 17:00etan, Korrikaren abestiak girotuta. ◀

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA



AZKENEKO EGUNAK:

urtarrilaren 27ra arte

Josu Murueta kultur etxean (Erandio)



Juanma Rojas Arcos (La Garriga, Bartzelona) CUPeko Nazio Idazkaritzako kidea da, pasa den abuztutik. Getxoko Tosu landan egon zen, erresistentzia-kanpaldiari atxikimendua emateko eta berba egiteko instituzioen eta herri-mugimenduen arteko harremanaz. Rojasek gizarte-mugimenduetan militatu du zenbait urtez, baina politikan sartzeko ardura heldu zaio, erregimena bota, konstituzio-prozesua abiatu eta Errepublikakatalana eratzen laguntzeko. Ostean, ohiko bizimodura bueltatu gura du.

«Erreferenduma egin egingo da, jendarteak gura duelako»



TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Erakundeak borrokaguneak dira CUPentzat?

CUPek dituen borroka-eremua horiek dira: erakundeak. Izatez, gu erakunde instituzionala gara. Halere, erakundeak berak ez du ezer irabazteko. Hori jendarteari helarazi behar diogu: lan-eskubideak ez ziren instituzio batean lortu, baizik eta langileen borrokari esker; borroka feministak lortu ditu gizonen eta emakumeen arteko parekidetasunera hurreratzeko eskubideak; arrazakeriaren aurka irabazi den guztia, Rosa Parksen desobedientzia ekimenaren eztabaidatik eta atzetik zegoen borrokatik atera zen. Lege-aldaketa egiten duen azken geltokia da erakundea, baina alderik kontserbadoreena ere bada. Beraz, instituzioek beraiek ez dutela aurrera egingo ondo asumituta badugu, orduan ondo goazela uste dut.

Kataluniako Parlamentak inizatiba bi onartu ditu, independentziaren gaineko erreferenduma egiteko aurtun. Batean, Espainiako Estatuagaz hitzartutako erreferenduma proposatu da; bestean, alde bakarreko erreferenduma. Zein da zuen jarrera?

Berez askoz hobe eta erosoagoa da hitzartutakoa, beste aldearekin elkarlana egongo litzatekeelako. Gainera, eskubide demokratikoa da. Baina Estatu espainolak duen historia ikusita eta Euskal Herriko zein Kataluniako lurralde-gatazkei zelan erantzuten dien begiratuta, uste dugu ez dugula denbora alferrik galdu behar, erantzuna aurretik ezagutzen baitugu. Are gehiago, berbakideak jarrera hori behin eta berriro erakutsi digunean; ez da CUPen kasketa bat: «alde

bakarrekoa izan behar da ala bestela ezer ez». Ez dugu baimenik eskatu behar; elkarlanean hasi gura badute, ederto; ez badute kolaboratu nahi, guk demokrazia berdina berdina gauzatuko dugu.

“Ikus dezatela independentzia den moduan: 78ko erregimenetik apurketa-ekintza iraultzailea da”

Carles Puigdemont presidentak konfiantza-kate bat eskatu zizuen, gehienez jota irailean «erreferenduma ala erreferenduma» egingo zuela iragarri eta gero. Gaur egun badago konfiantza hori?

Konfiantza mantentzen jarraitzen dugu, horregatik goaz aurrera. Baina konfiantza ezin da itsuan eman, ekimenen eta elkarrekotasunaren beharra dauka konfiantzak. Guk konfiantza-kate hori erreferendumarekin eta prozesu konstituziogilearekin lotzen dugu, horregatik erabaki dugulako gure arerio politikoekin batera ibiltzea. Helburu zehatza da estrategikoki Junts Pel Sí eta gu batzen gaituena. Ildo horretan aurrera baldin bagoaz, konfiantzak segituko du. Aurrera ez bagoaz, konfiantza zalantzan ipiniko dugu.

Azkenean erreferenduma egingo dela uste duzu?

Egin egingo da, ez delako alderdien kontu bat. Ez da CUPek, Junts Pel Sí, ERCk edo PDECK gura duten zerbait, jendarte katalanak gura duena baizik. Independentziaren alde ez dagoen jende multzo batek ere sinesten du bozkatzeko eta erabakitzeko bidezko eskubidean. Beraz, erreferenduma egin egingo da. Estatu espainolak gura ala ez, egingo da.

Berriro ere A-9koa moduko prozesu parte-hartzaile ez eraginkorra izateko arriskua dago?

Beste A-9 bat gertatzea ez dugu onartuko. A-9 egin genuen, horrek balorazio positiboa zein negatiboa ditu, eta jasotako kritiketatik ikasi behar dugu. Ez gabiltza prozesutik tiraka beste A-9 bat egiteko. Horrek gura ez ditugun zorigaiztoko ondorioak ekarriko lituzke. Guk ez genuke horretan lagunduko. Ostera, dagoeneko lanean dihardugu, egindakoa errepika ez dadin.

Junts Pel Sí ohartarazi du aurrekontu barik ez dela erreferendumik izango. Zer deritzozu horri?

Artur Mas gabe hauteskundeak egongo zirela ere esan zuten: «Mas o març». Bakoitzak negoziatzeko bere estrategiak erabiltzen ditu. Guk uste dugu neurriz kanpoko delatotea jendartearen gehiengo zabal batek gura duen erreferenduma eta aurrekontu autonomiko batzuk. Izatez, erreferenduma ekintza demokratiko handi bat da, herriaren independentzia ere ekar dezakeena. Guk hala gura dugu. Bestalde, aurrekontuak daude; proiektu independentistan sinesten ba-



dugu, datorren urtera arte baino ez dute iraungo. Ez dugu ikusten bien arteko harremanik. Gainera, CUP ahalegin handiak egiten dabil aurrekontu horiekin. Inoiz ez dira antikapitalistak izango eta inoiz ez dira gureak izango, baina nazio-ikuspegia eman diegu, ez guri gustatuko litzaigukeen ikuspegi ideologikoa, edo alternatiba bat eraikitzeke haina. Guk esan genuen gutxieneko batzuk ezarri behar zirela, eroso onar ditzagun. Gutxieneko horiek oraindino ez daude. Beraz, militantziak baloratuko du Junts Pel Sik mahai-gainean ipinitakoa nahikoa den ala ez.

Zeintzuk dira gutxieneko puntu horiek?

Murritzeta batzuen lehengoratzea, erreferenduma eta aberatsenei zergaren bat ipintzea. Biztanleriaren %4ari eragingo lioke eta neurri positiboetan itzuliko litzaieke beste denei. Ez genuen marra gorriarik ezarri formatu aldetik, baina aberastasuna birbanatzea lortu gura dugu. *Governaren* esku utzi dugu zelan egin.

Hezkuntza-mundua ere azpimarratu duzue.

Bai, gaur egun sektorerik mobilizatuenetako bat da. CUPek oin bi ditu: bata, instituzioetan dago; bestea, kalean. Garrantzia ematen diegu horrelako mobilizazioei, borrokan daudenei zor diegu. Horretaz kanpo ere, errepublika bat eraiki gura badugu, hezkuntza da edozein jendarteren oinarritzko zutoinetako bat. Defendatu beharra dago, gauza guztien gainetik. Gobernu eta proiektu politiko denentzat hezkuntza ezinbestekoa da, eta euren interesen arabera moldatzen

dute. Guretzat ez luke negoziagarria izan beharko hezkuntza publikoari behar dituen baliabide denak ematea, irakasleek bere lana lasaitasunez eta murrizketarik eta doiketa-neurririk gabe egin dezaten.

“ Ez dugu bakarrik lan egin behar erreferenduma deitzeko; irabazteko ere ahalegin handia egin behar dugu ”

Puigdemont negoziazioetan egotea gura zenuten.

Garrantzi handia eman diogu mahai-gainean ipinitako presio-neurriari, hau da, erreferenduma aurrekontuen arabera baldintzatzeko kontuari. Horregatik diogu presidentearen mailako kontua dela, eta ez Ekonomiarren arduradunarena. Aurrekontuei herrialde-mailako zentzua eman gura diegu, ez aurrekontu-zentzu soila; bestela, ez genituzke inoiz onartuko. Herrialde-mailako kontua bada, Puigdemontek barruan egon eta keinuren bat egin beharko luke.

Noiz erabakiko dute CUPeko militanteek aurrekontuak pasatzen utzi ala atzera botako dituzten?

Aste honetan. Zapatuan hartuko da azken erabakia.

Puigdemonten arabera hau da «autonomiaren oste-ko eta independentziaren aurreko ezohiko legealdia». Bide-orri horretan, non zaudete gaur egun?

Atea irekitzeaz. Atea aurrean daukagu eta borondatea besterik ez dugu ipini behar zabaltzeko, eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko, beti da zatirik garrantzitsuena. Gure ustez, erreferendumak egoera honekin amaituko du eta «*independència, independència*» aldarrikatetik independentzia gauzatzera pasatuko gara. Guk Puigdemont bera, elkarteak eta jendarte osoa gonbidatzen ditugu ekintza horretan parte hartzera: erreferenduma antolatzen, su eta gar defendatzen eta botoa ematen. Ikus dezaten den moduan: 78ko erregimenekiko apurketa-ekintza iraultzailea. Erregimen horrek dituen gabezia demokratikoak erakusten ditu behin eta berriro, baina hautetsontziak kentzea izango litzateke demokrazia eza horren irudi bukolikoa.

Azkeneko iritzi-azterketen arabera, katalanen %63k botoa emango luke alde bakarreko erreferendum batean, eta haietatik %79k independentziaren alde egingo luke. Egoera hobea izan daiteke?

Hobea beti izan daiteke, kar, kar, kar. Argi duguna da ez dugula bakarrik lan egin behar erreferendumerat deitzeko; irabazteko ere ahalegin handia egin behar dugu, independentistak gara. Zilegitasun bera du ezezkoa ateratzeko lan egin dezakeen jendeak; erreferenduma egin ondoren, onartu egin behar izango dugu denok aterako den emaitza. Zergatik gara independentistak? Uste dugulako politika zaharrarekin apurtzeko aukera onena independentzia dela. Orain arte erakundeek indartu egin dute norbaitek «lotua eta ondo lotua» utzi zuen eredu. Hori eraldatzeko tresnarik onena da independentzia; 78ko erregimenarekin eta bere zutoineko bat den Espainiako lurraldetasunarekin banatzea ekarriko du horrek. Hori nazio denek erabakitzeko eskubidea dutena ahaztu gabe: herritarrek erabakiko dute non bizi gura duten.

CUPeko hainbat militante eta hautetsi eroan dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalera; *Parlamenteko* Mahaiaren eta A-9ko auziak ere hor daude; eta zenbait lege katalan baliogabetu dituzte. Zure ustez ze bilakaera izan dezake egoera horrek?

Logikoa denez, aurreikuspena da hori guztia handiagotzen joatea: akzio-erreakzio eskema da. Estatu espainolaren tresnak errepresioarenak dira eta horretaz zuek guk baino gehiago dakizue. Legalitatea legitimitatearen gainetik defendatzeko euren modua izango da eta, behar izanez gero, ez diote euren legalitateari jaramonik egingo edo, zuzenean, beste bat asmatuko dute. Azkenean, euren pribilegioen eta *status quo*aren alde egingo dute. Horrek gudan eragina izango du, baina ez gaitu geldituko. Errepresioa ez da izango hau geldiarazteko gai.

Herri katalanak zelan erantzun behar du?

Orain arteko erantzuna ona izan dela esango nuke. Errepresioa normalizatu dugu, gatazkaren biktima bihurtu gabe. Tresna demokratikoak erabiltzen ditugu guk; osterat, euren tresnak zalantza legalitatean oinarritzen dira. Izan ere, legalitate osoa erregimen faxista eta totalitario baten gainean eraikita dago. Besteak beste, horren isla da Auzitegi Nazionala; adibidez, epaitu gintuen azkeneko epailea Polizia frankistako kide ohia zen. Guk ez diogu horri agintaritzarik onartuko. Bestalde, joan ala ez, militanteen erabaki politikoa da. ◀



Korrika egiteaz gainera, herrietan egongo diren ekitaldiak antolatzen laguntzeko aukera dago, batzordeetan parte hartuz edo euskaltegietan galdetuz.

Korrika Uribe Kostan

Herriz herri

Apirilak 5, eguaztena

Urduliz (23:41)

Apirilak 6, eguena

Gorliz (00:06) / Plentzia (00:26) /
Barrika (00:47) / Sopela (01:06) /
Berango (01:44) / Algorta (02:08) /
Leioa (03:23) / Erandio (03:56)

Erandiogoikoa (21:25)

Korrika-batzordeen bilerak

Erandio. Urtarrilak 26, eguena. 18:30ean,
Berbetsen egoitzan.

Urduliz. Urtarrilak 27, barikua. 17:30ean,
kultur etxean.

Algorta. Urtarrilak 27, barikua. 19:00etan,
Azebarri kultur elkartearen.

Barrika. Otsailak 1, eguaztena. 18:00etan,
kultur etxean.

Sopela. Otsailak 2, eguena. 18:30ean,
Kurtzio kultur etxean.

Leioa. Otsailak 2, eguena. 19:30ean,
Lamia euskaltegian.

Udaberrian, 20. Korrika

Euskararen aldeko lasterketak apirilaren 6an zeharkatuko ditu eskualdeko herriak, Lemoiz izan ezik.

Udaberrian zeharkatuko ditu Korrikak Euskal Herri osoko bideak eta errepideak, martxoaren 30etik apirilaren 9ra arte; Otxandion hasi eta Iruñean amaituko da euskararen aldeko lasterketa-

ren 20. edizioa, AEK-k jakitera eman duenez. Uribe Kostari dagokionez, apirilaren 5ean, eguaztena, Laukiztik helduko da Urdulizera 23:40ak aldera, eta Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Berango, Algorta, Itzubaltzeta/Romo,

Areeta, Leioa eta Erandio zeharkatuko ditu Korrikak, apirilaren 6an, gaueko ordu txikietan. Goizaldeko 04:55ak aldera agurtuko dugu Barakaldora bidean, ohi den legez, itsasadarra traineruz pasatuz. Erandiogoikoan bueltan izango dugu Korrika egun berean, gaueko 09:25ean.

Behin datak zeintzuk diren jakinda, daborduko eskualdeko herrietako

batzordeak lanean hasi dira; Berango, Gorliz-Plentzia eta Itzubaltzeta/Romon batzen hasi dira, besteak beste; gainontzeko herrietan hurrengo egunotan batuko dira. Korrika-batzordeek izaera zabala daukate, edozeinek parte har dezake: elkarteek, kirol-taldeek, norbanakoek... Batzordeen zereginen artean dago herrian egingo diren ekitaldiez arduratzea. ◀

Hitza emanda



Alerta

*Emakume artean
piztu da alerta,
errefuxiatuak
zain daude zer gerta,
munduak ematen du
errusiar ruleta...
alerta etengabea
bizi gara eta!*



INAZIO VIDAL GURRUTXAGA
Bertsolari leioaztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertsu bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Ablazioaren inguruko berbaldia, Algortan

Ablazioa izango dute berbabide Mujeres con Voz elkarte getxoztarrak antolatutako ekitaldian, bariku honetan, urtarrilaren 27an; Munduko Medikuek gobernuz kanpoko erakundeko langile ginear Fatima Djarra Sanik *Indomable: de la mutilación a la vida* liburua aurkeztuko du. Hitzordua 19:00etan ipini dute, Algortako kultur etxean; sarrera, doan. Djarrak ondo daki genitalen erauzetak zer-zelako ondorioak dakartzan. Lau urte zeuzkala, ia klitori osoa eta baginako ezpain txikien zati bat erazi zizkioten, laban batez, bere jaioterrian, Ginea Bissaun. Baina, ablazioaren ondorio fisikoek eta psikologikoek ez zuten Djarra makurraraztea lortu; emakumeen eskubideak erasotzen dituzten bere herrialdeko tradizio denen aurka borrokatzeko gogo menderakaitza eragin zioten ordea.

Nafarroako Munduko Medikuek erakundearen bitartekaria da Djarra;



Fatima Djarra Sani ginearra. ECUADOR ETXEA

mutilazio genitala saihesteko gogorlan egiten du. Ildo berean, Afrikako gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen ahalegintzen da. Udaurreko garaian bereziki lanpetua egoten da, Munduko Medikuek elkarteak Iruñean daukan egoitzan jardunean; izan ere, ablazioa egiten den herrialdeetako gurasoak dituzten neskatilak senideengana oporraldia igarotzera joan ohi direlako, eta genitalak erauz-teko arriskua handiagoa da orduan. ◀

Tunelbokatik Barrikarainoko kostalde-zatiko argazkiak ikus daitezke, Bilbon

Aurrekoetan legez, Bilboko Ondare Aretoak artista bizkaitar bat gonbidatu du, *Izadiaren argazkilariak 2016* erakusketan parte hartzeko. Oraingo honetan, Santi Yaniz argazkilari bilbotarrak *Izadi sublimea* izeneko lana aurkeztu du. Ikusmenean zein emozioetan inpaktu handia daukaten bost kokaleku erakutsi ditu: Gaztelugatxeko inguruak; Otxarretako basoak eta Be-laustegiko ur-jauzia, Gorbeiaiko Parke Naturalean; Tunelbokatik (Galea, Getxo) Barrikaraino doan kostalde-zatia; eta Urkiolako Parkea. Yaniz argazkilari ezaguna da; eta, kazetaria, da 1980. urtetik. Haren argazkilaritza-estiloa «xumea» da proeiktuaren antolatzaileen esanetan. Erakusketa urtarrilaren 31ra arte ikusi ahal izango da, ordu haue-tan: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, astelehenetik barikura; eta 10:00etatik 14:00:00etara, zapatuetan. Sarrera doakoa izango da. ◀

info+: www.bizkaikoa.bizkaia.net/ondarearetoa



Iberdrola liga izena hartu du aurten Ohorezko Mailako ligak. © ESTHER CHAPARRO - CRM

Iberdrola ligan estreinatu da Getxo Rugby Taldeko emakumezkoen senior taldea, modu gozoan. Ostera, krisitik atera gura du gizonezkoen lehenengo taldeak.

Getxo Rugby Taldeak puntu bi batu zituen pasa den zapatuan, Madrilen, Ohorezko Mailako Iberdrola ligan estreinaldian. Hori-beltzek Majadahondako urdin-gorriek 15na berdindu zuten, partida oso orekatu batean. Balorazio positiboa egin du Isabel Rodríguez entrenatzaileak eta jokalaria: «berdinketak zapore ona utzi digu oraingoan». Izan ere, Ohorezko Mailako ligan lehenengo partida ez zen erraza, madrildarrak iazko txapeldunordeak dira eta. Gainera, talde hori-beltzak ezin izan zituen zelairatu zazpi jokalaria, ezin izan zirelako partidara joan, hainbat arrazoi tarteko. Halere,

Fadurakoen joko ona ikusi ahal izan zen, lehenengo zatian, batez ere. Rodríguez pozik agertu zen emaitzagaz, baina jakin badaki taldeak zer duen hobetzeko: hasierako «erasoetan asmatu ez izana da, beharbada, partidaren akatsik handiena, atsedenaldira abantaila zabalagoagaz heltzeko aukera izan genuen». Bestalde, taldeko beteranoak azpimarratu du taldearen jokalaria berriak ondo jardun zirela: «jokalaria denek egin zuten partida oso ona».

Zapatukoa Getxoren lehenengo partida izan bazen ere, ez zen Iberdrola ligan lehenengo jardunaldia, bigarrena barik. Aurrekoa, Sanse Scrum talde madrildarraren aurkakoa,

bertan behera geratu zen; Espainiako selekzioaren deialdian zeudelako Getxo Rugby Taldeko hiru jokalaria: Saioa Jaurena, Nerea Agirre eta Uribarri Barrietia, azken hori Durango taldeko kidea da, baina aurtengo denboraldian Getxogaz jokatuko du. Hala, Sanse Scrumen aurka martxoaren 26an jokatuko dute, Madrilen.

Espainiako hiriburuan jokatuko ditu partida gehienak Getxok aurtengo denboraldian: lau aldiz bisitatuko du Madril, denera. Beste hiru norgehiagokak Faduran jokatuko ditu. Hurrengo partida otsailaren 12an izango da, Bartzelonako INEFen aurka, berton. Zazpi egun beranduago, bisita egingo diote Madrilgo Hortalezari. Martxoaren 4an, Gironako GEIEG taldearen anfitrioiak izango dira; hilaren 19an, oster, Madriler joango dira, berriro ere, Pozuelo Olimpico taldearen aurka jokatuko.

tzeko. Atzeratutako norgehiagokaren, Getxok CRAT Coruña taldearen kontra erabakiko du sailkapena azken jardunaldian, apirilaren 2an, Faduran.

Gizonezkoak, zulotik ateratzen

Pasa den astean, Ian Fowler entrenatzaile australiarra kargutik kendu eta Tongako Simon Hafoka teknikaria kontratatu zuen Getxo Rugby Taldeak. Klubak Ohorezko Mailako gizonezkoen taldeko arduraduna aldatzeko erabakia iragartzean ez zituen ezkutatu arrazoi mingarriak: «denboraldian izandako emaitza kaskarrak» eta «kirol-egoera txarra». Domekan, Hafokak lehenengo aldiz zuzendu zituen hori-beltzak. Getxotarrek Faduran hartu zuten Alcobendas liderra; partida parekatua izan zen eta etxekoek zirrara ona eragin zuten zaleengan, 11-28 galdu arren. Azkenak dira sailkapenean. ◀

Euskal Herriko Waterpolo Kopa barik geratu da Askartza

Euskal Herriko Waterpolo Koparen lauko finalak jokatu zituzten pasa den zapatuan, Iruñean. Bertan, Askartzako emakumezkoen taldea izan zen Uribe Kostako ordezkari bakarra. Leioaztarrek iaz irabazi bazuten ere, aurten ez dute balentria hori errepikatzerik izan. 9802 waterpolo talde nafarrak etxean jokatu zuen eta abantaila hori baliatu zuen finalurreko partida estuan. Etxekoan alde egon

zen markagailua lehenengo zatian. Bigarren, leioaztarrek aurreratu ziren tanto batengatik, 4-5. Hirugarren zatia amaitzean, 7na berdinduta zeuden; baina, azken zatian, 9-7 nagusitu ziren nafarrak. Hala ere, kopa Eibarko Urbat taldearentzat izan zen emakumeen atalean, 9802 taldea 11-7 mendean hartu ostean. Gizonezkoen atalean, nafarrek lortu zuten kopa, Bilboko Deportivo taldea garaituz finalean. ◀



Kirolaz beste

IÑAKI ETXEGIA MARDARAS
Kirolaria

Jan, elikatu edo modari jarraitu

Hiru aukera ditugu gaur egun. Alde batetik jatea, eta jateari elikagai bat jateari soilik deitzen badiogu, soilik gosea kentzeko helburuarekin egiten dugun ekintza da. Bestalde, elikatzea oso ezberdina da, izan ere, gorputzak dituen eskariak asetzeko egiten dugun ekintza baita, horietako bat gosea kentzea delarik. Hirugarren aukera modari jarraitzea da, gaur egun esaten dena alegia, aste osoan elikatu eta asteburuko askari batean *cheat meal* delakoa, hau da, gosea kentzeko jan. Nire hautua zein den argi daukat. Gorputzak esaten didanari jaramon eginez elikatzen naiz eta ez «nigan» pentsatzen duten negozioren ikerketen menpe. ◀

Hirukira oLgetan

SOLUZIOAK:



Ganbaran

Maripurtzil eta Pelloziri zakurraren bila dabiltza, gaur bainatzeko beharra duelako. Pinttok, ordea, ez ditu xaboia eta ura batere gogoko eta alde egin die. Ganbaran gorde ote da? Zer uste duzu?



Pintto

● Ea ondoko elementuok ere aurkitzen dituzun.



Kapela



Gutuna



Margo-potoa


Labirintoa

Lagundu igelari urmaelera heltzen. Zomorroak dituzten laukietatik pasatuz, gora, behera, ezker edo eskumara jo, baina ez diagonalean.




Bai biTxia!

Itsaspean aurkitu beharko ez genituzkeen elementuak daude hemen. Zeintzuk dira?




Zazpikoa

Bila egizuz bi irudi hauen artean dauden zazpi aldeak.



ZORRI GOGAIKARRIAK



Ai ene, hori azkura. Orrazia pasa eta pasa, baina, halere, hamarretik sei zorri harrapatu ditu, eta lau libratu egingo dira. Zeintzuk?

Sudokua

Bete zuriz dauden laukiak 1etik 6rako zenbakiak erabiliz. Gogoratu zenbaki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzeko.

1	2		5	6	
4					1
			3	5	
	3	6		1	
	5				3
3		2	6		

Aibala!



Zomorroa naizela badakizu ondo, baina **intsektu** ez naiz ta ez naiz izango. Aldea zein ote den dizuet esango: intsektuek dituzte **hiru** pare zango.

ARRAIOA, ZENBAT HANKA DITU BA ALU HORREK!



Egin gurutzea laukian, erantzun zuzenari:

- ☐ Armiarmak begiak adina zango ditu.
- ☐ Lau pare zango.
- ☐ Guztira hamar zango.

Non da parea

Pellozirik galtzerdia galdu du, hain zuzen eskuan daukanaren pare. Non demontre dago ordea! Gelan egon beharko luke, baina non? Despistatu xamarra da eta lagundu egin beharko diozu bilaketan

1 2 3 4 5



Bost biribiletatik bat ez da zuzena. Zein da?



Lehiaketa: Non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?

SARIA

**Ilea ebakitzeko
BONUA familia
osoarentzat**

Marsun ileapaindegiaaren ekimenez, familia bereko 4 kidek (nagusi 2, gehienez) ilea garbitzeko eta ebakitzeko bonua irabaz dezakete.

Bonua lortu gura baduzu, otsailaren 6a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Sukaldean

Perretxiko-nahaskia, kipula eta piper gorriagaz



OSAGAIK:

Perretxikoak, kipula, piper gorria, Modenako ospina, arrautza, ardo zuria, perrexila eta ogia.

TXIBERRI EDANTOKIA

Aita Gotzon, 4 - 48610 Urduliz
 Tel.: 946 760 715

Urdulizera bueltatu gara oraingoan, Aita Gotzon kalean dagoen Txiberri edanlekura, beren-beregi. Tabernara sartu bezain laster, etxeko garagardoz eta pintxoz beteriko barra ikus dezakegu; ezin ahaztu, aipatzekoa da eta, zelan ez, taberna hartzen duen eraikinaren atzeko aldean pilotan jolasteko dagoen frontoia. Kirola egin eta gero, indarberritzeko egundoko lekua da Txiberri, beste kontu askoren artean. Gainera, askotariko pintxoak eta ogitartekoak eskaintzen dituzte bertan, frontoian pilotari kolpeka ibili ostean edonor suspertzeko modukoak. Horien artean nabarmentzekoa da orriotara ekarri dizuegun perretxiko-nahaskia. Ogitarteko hori 1,2 euroan saltzen dute; hala ere, hori

zelan egiten den zuei, gure irakurleoi, erakusteko baimena eman digute. Goazen bada! Lehenengo eta behin, perretxikoak, kipula eta piper gorriak txikitu eta ardo zuriagaz gisatuko ditugu. Behin ardoa lurrundu denean eta dena eginda dagoenean, arrautza bota eta den-dena nahastuko dugu. Bitartean, ogi zati bat hartu eta oliotan txigortuko dugu. Horren ostean, nahaskia ogiaren gainean ipini beharko dugu, eta Modenako ospina bota horren guztiaren gainean. Amaitzeko, mokaduari azken ukitua emateko, perrexil apurrak botako dizkiogu denaren gainetik, pintxoari kolorea emateko. Erraza, ezta? Eta ze gozo dagoen! Ez zalantzarik izan eta proba egizue etxean, ez zaizue damutuko eta!

faceguk



Zer deritzezu Getxoko edukiontzi berriei?

JOSEBA ARESTI
 ALGORTA



Itxuraz lehengoak hobeak zirela uste dut. Lehen, gainera, oinak ere erabili ahal genituen zabaltzeko; orain, eskuak bakarrik... Horrez gainera, antza berdinegia dute denek.

CRISTINA LAMELAS
 ALGORTA



Edukiontzi gehiegi dago orain, eta aparkatzeko lekua kendu dute. Daborduko arazoak ditugu aparkalekuakaz eta kokaleku berriakaz leku gehiago kendu dituzte.

JAIME GOIRIA
 ALGORTA



Lehenegok pedalak zeuzkaten zabaltzeko, oraingoak ez; antihigienikoak dira. Halere, egia da, orain papera eta plastikoenetan gauza handiagoak sar daitezkeela.

ANTON URIZAR
 GETXO



Uste dut Udalak ez duela asmatu horiek aldatzerako orduan. Lehenegok praktikoagoak ziren; zituzten pedalek erosoagoak egiten zituzten, zaborra botatzeko orduan.

MARISA CARRERA
 ALGORTA



Politagoak direla uste dut, baina deserosoagoak baita ere. Gainera, kolorez antzekoak dira denak, eta lohiagoak dira, eskuagaz zabaltzea beharrezkoa da eta.

Dastaketa fitxa

TXAKOLINA: Bitxia.

UPELTEGIA: Talleri.

DASTAKETA: Eraso atsegina, arin bezain zapoetsua, lorratz luzekoa. Azidotasuna oso ondo orekatuta dago, eta horrek edari freskoa eta edateko atsegina bihurtzen du. Igaroaldi gozoa du ahoan zehar, gatz-arrasto arinaz eta amaiera mikatz samarraz, gosea eragiteko asmoz. Sudurraren atzeko aldean, ederto azaltzen du bere fruta-kutsua, esentzia baltsamikoak sorraziz. Ezin hobe aperiitiboan, eta gazta bigunakaz edo gehiegi prestatu gabeko arrain zuriakaz hartzeko.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua